

Bertso Hop



BERTSO HOP

Bertsolari Txapelketa Nagusia da aurten. Guk ere izango dugu hitzez lehiatzeko aukera:

Euskadi Gazteak Bertso Hop Txapelketa antolatu du irratian. Hip Hop erritmoen gainean 2 kopla grabatu (mp3an) eta emailaz bidali behar dira. Sariak daude partehartzaileentzat eta irabazleentzat. Informazio gehiago www.gaztea.com webgunean duzue..

Lehiaketa horretan parte hartzeko grabazioak egitea izango da egun hauetako gure lana.

Denak prest? Has gaitezen bada.



Txapelketan parte hartzea!

- Entzun adi txapelketako musika oinarriak. Doinuak ezagun egingo zaizkizu.
- Txapelketan parte hartzeko, norberak aukeratu dezake zein gairi buruz egin koplak. Baldintza bakarra dago: erronka koplak izatea. Hara hemen proposatzen dizkizugun pertsonaiak:
 - Txanogorritxo eta otsoa
 - Lapurra eta banketxeko langilea
 - Ikaslea eta irakaslea
 - Edurne Zuri eta Printze Urdina
 - Gurasoa eta semea/alaba
 - ...
- Talde txikitari jarri, eta aukeratu itzazue zuen doinua eta gustuko bi pertsonaiak.

Doinua:

Pertsonaiak:

MCak eta bertsolariak

- Zer antzekotasun dituzte MCek eta bertsolariek? Eta zertan ezberdintzen dira? Ikus adi-adi hurrengo bideoa eta erantzun galdetegia.

MCak Gemikako Critic A Chronic taldekoak dira. Bertsolariak Unai Iturriaga eta Sustrai Colina, Txapelketako Finalean.

	MCak	BERTSOLARIAK
Zenbat ari dira kantuan?		
Erronkan ari al dira?		
Nola erabiltzen dute gorputza ?		
Errimatzen al dute?		
Musikak lagunduta kantatzen al dute?		
Inprobisatu egiten al dute?		



- Ondorioz, zein ezaugarri dituzte komunean hip hopak eta bertsolaritzak?

- Eta zertan ezberdintzen dira?

Hitzari indarra emateko, Hip Hopak **gorputza mugimenduan** jartzen du; bertsolaritzak, aldiz, **geldirik**. Hip Hopa **musikaren laguntzaz** baliatzen da; bertsolaritza, **ahots soilaz**.
Bi mutur dira. Baina **komunikazioan, biek dute indarra**.



BA AL ZENEKITEN?



Hip-Hopa 70. hamarkadan AEB-etako auzo txiroetan sortutako **mugimendua** da, espresio bidea. **Ideiak eta sentimenduak adierazteko modua** da Hip Hopa eta horretarako, baliabide desberdinak erabiltzen ditu: Rap musika, Break dantza eta Graffiti.

Rap musikak, doinu, errima eta letren bitartez, ahozko espresioa adierazten du, kantatzeko eta musika egiteko modu berezia da. Bi rapper edo gehiago elkartu ohi dira. **Abesten dutenei MC** deritzaie eta **musika** jartzen dutenei disko jartzaile edo **DJ**.

***Oilarren arteko borrokak:** Oraindik euskaraz egiten ez badira ere, beste hizkuntza batzuetan rapperren arteko borrokak egiten dituzte. Esaldiak inprobisatuz elkarri mokoka ibiltzen dira musikaren laguntzaz. Txapelketak antolatzen dituzte.

Break dantzak gorputzaren espresioa ahalbideratzen du. Gorputza, lurrarekin harreman estuan eta musikaren laguntzaz, mugimendu ikusgarrien bidez, espresio tresna bilakatzen da.

Graffitiarekin, ideiak eta sentimenduak irudi bihurtzen dira. Espriaren teknika baliatuz panel edo paretak orri zuriaren papera jokatzen dute.



Zaharrek berri

- Hip hopa eta bertsoak nahastea ez da gauza berria. Entzun eta kantatu ditzagun Negu Gorriak taldeak rap bihurtutako ondorengo bertsoak.



Gaia: Peñagarikanok gaur egundoko parranda bota du eta etxera etortzean, emaztearen ohean sartu ordez, amonaren ohean sartu da.

1- Egaña:
 BATETIKAN KORROZKA
 BESTETIK HERRENA
 OHIA OKUPATU DU
 HORI DA TXARRENA
 EZ DA PINTA KABALA
 HONEK DAKARRENA
 KANTZONTZILORIK GABE
 OHEAN BARRENA
 PIXKAT GUTXIO EDAN
 EZAZU HURRENA

3- Egaña:
 EZ DIOT TXARTZAT HARTU
 MUXUKA HASTE
 NAHIZ ORAINDIK EZ EGON
 HOLAKO GAZTEA
 EZ DA GAUZA EDERRA
 BURU ESKASTE
 HARI TOKATU BEHAR
 HOLAKO TRASTE
 MARTIRI BIHURTU DU
 BERE EMATZEA

5- Egaña:
 OHEAN SARTU ZAIGU
 KOLPERA ONDUAN
 LAPUR GAIZTO TA TRAKETS
 HOIETXEN MODUAN
 PIXA EGIN EZAZU
 TOKI SEGURUAN
 KORDEA BANATZEKO
 HEMEN INGURUAN
 POLTSA BEROAREKIN
 JOKO DET BURUAN

2- Peñagarikano:
 GAUR PARRANDAN JO TA KE
 HOR DABIL GIZONA
 LEHEN PASILLOA JO
 TA GERO KOMONA
 USTE NUEN HAU ZALA
 NIK NERE MOÑONA
 LAZTANTZEN HASI NAIZ TA
 EZ DA HORREN ONA
 MOZKORRA NATOR ETA
 BARKATU AMONA

4- Peñagarikano:
 NUN IBILI NAIZEN NI
 ESAN DET LEHENAGO
 AMONAREN ONDOAN
 EDERKI EZ NAGO
 IZAN ERE EDAN DET
 HORRENBESTE ARDO
 GUTXIENEZ BAZITUN
 HOITA ZAZPI GRADO
 BOTA EGIN BEHAR DET ETA
 OÑALA NUN DAGO?

6- Peñagarikano:
 POLTSA BEROAREKIN
 HORTXE JO NAU DANBA!
 NI EZ NAIZ LOTSATUKO
 EGIA ESANDA
 AMONAN ERREZOA
 HOLAXE IZAN DA:
 "REQUIEM EST DOMINE
 VIRGO VENERANDA"
 GEHIO EZ NAIZ ETORRIKO
 AMONA EDANDA





EKIN LANARI

Baietz... !

- Gogora ditzagun aurreko egunean talde txikitan aukeratu zenituzten pertsonaiak. Pertsonaia guztiak erronka jolas batean jarriko ditugu. Pertsonaia horiei lotuta, bi kopla egingo ditugu gaur, taldeka.

- Hasteko, erronka koplen ezaugarriak zein diren ikasteko, eredu bat ikusiko dugu. Aukera dezagun kopla doinu bat, eta 7 eskale taldeak jarritako kopla hauek abestuko ditugu.



Gaia: eskalea, parean pasatzen diren herritarrei txanpon eske.

Eskalea

?

Eskalea

?

1- Alkate jauna eman
hirureun pezeta
ni ere zure herriko
semea naiz eta

2- Etzazu alperrik galdu
zuk nire denbora
zerbait eskatzekotan
etorri plenora

3- Herriko Rockefeller
etor zaitetz hona
sobra duzu ta zerbait
luzatu gizona

4- Bost mila pela erraz
eman ditzaket nik
baina ez dut uste orain
solte dauzkadanik

- Badago ulertu ez duzuen hitzik? Galdetu lasai irakasleari.



Eredua aztertzen

-Asma dezagun, bi herritar horien artean, nor den alkatea, eta nor herriko aberatsa.
(ahoz erantzungo ditugu datozen galderak).

-Zergatik jakin duzue nor den alkatea?

-Eta zergatik jakin duzue nor den aberatsa?

Erronka koplak. Kontrol zerrenda**Kopla txikia**

.....(7)
.....errima (6)
.....(7)
.....errima (6)

Erronka koplak

- Koplaren hasieran, aipatu nori ari zareten erronkan.

- Esan bere izena, edo bera dela argi uzten duen esamolderen bat. Adibidez: "*alkate jauna entzun*", "*herriko Rockefeller*" (Rockefeller gizon oso aberatsa izan zen).

- Azken puntuan, argi utzi zein den erronka.

- Bigarren koplari, beste pertsonaiak erantzun egin behar du. Bilatu argudioak, pertsonaia horren ezaugarriak kontutan hartuta: zer erantzungo luke?

Erronkak berezkoa du jarrera harroa. Baina errespetua mantentzea nahitaezko baldintza da erronkan ere.





- Pausoz pauso egingo ditugu koplak.

- **Pertsonaiak:**

- **Doinua:**

- **Zein pertsonaiak botatzen du erronka:**

- Zein da **erronka:**

- **Beste pertsonaiaren ezaugarriak zerrendatu:**

.....
.....
.....
.....

- Eta ezaugarri hauek kontutan hartuta, **zer erantzungo luke?**

.....
.....

- **Dena prest daukagu. Egin ditzagun 2 koplak.**

Pertsonaia:

.....
.....
.....
.....

Pertsonaia:

.....
.....
.....
.....

- **Taldean egindako koplak irakaslearekin berrikusiko ditugu.**



**IRITSI DA EGUN HANDIA**

- Koplak ederrak egin ditugu. Jantzi dezagun bisera, eta grabatu dezagun gure lehen diskoa!
- Hip Hopean jarrera garrantzitsua da: gorputza eta kantaera bat datoz. Gure koplak tajuz grabatu eta sinesgarri egin nahi baditugu, erronkarako jarrera hori nabaritu egin behar da kantuan. Has gaitezen:

Mugitu gorputza. Askatu

- Zutik jarriko gara, eta bi taldetan banatuko dugu gela. Negu Gorriak taldeak moldatutako bertsoak berreskuratuko ditugu. Lehen taldea Egaña izango da (amona), eta bigarren taldea Peñagarikano (mozkor datorrena). Diskoa jarri, eta has gaitezen kantuan.

Azken entsegua

- Taldeka jarri, eta hartu zuek egindako koplak. Hip Hop basearen gainean, entseatu egingo dugu gelaren aurrean, zutik jarrita. Gainerakook, aholkuak emango dizkiegu.

KANTAERA**Aholkuak emateko zeri erreparatu**

- Kanturako jarrera egokia da? Bat datoz esandakoa, eta kantatzeko jarrera?
- Argi ulertzen dira hitzak? Hitz edo esaldiren bat, gehiago azpimarratu behar litzateke?
- Grabaketa dotoretzeko, ezer berezirik gehituko zenuteke?
 - Adibidez: soinuak (txistuak, txaloak, kriskitinak, hotsak), esaldiak ("hori dunk eta..."; "earra botazionk...").

**Aholkuak gauzak hobetzeko dira, laguntzeko, eta ez kargu hartzeko.
Denek egin duzue ilusioz lan. Beraz, hori bera eskertzekoa da.**

Kantuak grabatzen

- Taldeka grabatuko ditugu kantak, zutik jarrita. Publikoaren isiltasuna, eta laguntzeko jarrera nahitaezkoak dira. Lan handia egin dugu egun hauetan; beraz, bukatutakoan txalo zaparrada handia mereziko dugu, ezta?

Grabaketa nola egin

- Bi modu ditugu grabatzeko: bata, ordenagailuz, edizio programa bat erabilita (eritmoaren gainean grabatuz). Horretarako www.gaztea.com webgunetik jaitsi behar dira Hip Hop oinarriak. Bestea, oinarria DVD aparailu batean jarri ozen, eta abesten dugun bitartean, beste aparailu batekin grabatu (mp3).
- Grabazioak emailaz bidali behar dira. Informazio gehiagorako: www.gaztea.com





ENTZUN ETA GOZATU

- Entzun dezagun egindako lana.

- Hausnartu dezagun egindakoaz. (ahoz erantzungo dugu)

- Gustura sentitu zarete egindako lanarekin?

- Zer eragiten dizue zuen burua kantuan entzuteak?

- Egun hauetan, zein momentutan (edo zertan) aritu zarete gustura, eta zein momentu izan dira zuentzat zailenak?

- Zuen grabazioa hartuta: zer egin duzue egoki, eta zer hobetu liteke? Balorazioa egiteko, aintzat hartu bi kontrol zerrendak.

.....

.....

- Zuen moduko artista gehiago ere badira. Handik eta hemendik bildutako Hip Hop koplak entzuteko aukera duzue webgune honetan: www.gaztea.com

Irratsaioa egun eta ordu hauetan entzun genezake: azaroak 18, 25 eta abenduak 2 (asteazkenak), goizeko 8:00etatik 8:30etara.

Gozatu besteen lanekin!



ZER IKASI DUGU ?

Erronkako bi kopia egin eta grabatu ditugu taldeka. Orain atzera begiratu, eta egunotan ikasi duguna kontziente egingo dugu.

ZER eta ZERTAN IKASI DUT?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

